Argazkia: **Alfredo Conde**

Miru gorria: Neguarekin batera bisitan datorren hegaztia

Laudio

Laudion izango da Gazte Danbada topagunea, martxoan 3. or.

Kultura

Burubio, musikariek kudeatutako pabilioia, sortzaileentzako 11. or.

Iritziak:

TXEMA URKIJO 2. or.
ITZIAR LARRAZABAL 6. or.
ASIER AMONDO 10.or
JON MUÑOZ 11. or
ITZIAR URKIJO 16.or

aiaraldea.eus

Aiaraldeko hamabostekaria
2016 /// Urtarrilak 14 ///
OSTEGUNA
44. zenbakia ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus

Aiaraldea Urtero 3.460 tona zabor zerura

2014AN GUARDIAN IZAN ZEN ESKUALDEAN ATMOSFERARA GAS-EMISIO GEHIEN EGIN ZITUENA

NUBIOLA PIGMENTOS, BERRIZ, URETARA ZABOR GEHIEN ISURI ZUENA. HONDAKIN GEHIEN SORTU ZUENA ALDIZ AMURRIOKO TUBOS REUNIDOS ENPRESA IZAN ZEN

_kirola

Eneko Martinez

Motokrosean aritzen den Euskal Herriko kirolaririk gazteena da, Murgakoa

Lau urte baino ez zituen motor batera lehen aldiz igo zenean

Espainiako Txapelketan lehiatu da

12 or.

GAME ERAUNTSIA: Bideo-jokoetan euskaraz aritu nahi dutenentzako topagunea 10 or.

Konpromisoa
gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin

JEZ euskararekin

JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar z/g · 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

_iritzia

Txema
Urkijo
ABOKATUA

_Leihotik

Benetako elkarrizketa

Azken hauteskunde orokorren emaitzek urduritasun sakon batean murgildu dute klase politiko espainiarra. Lider handiek gobernu egonkor bat osatzearen erronkari egin beharko diote aurre, eta hori hainbat alderdiren arteko akordioen bidez lortu daiteke soilik, horrek dakartzan zailtasunekin. Inoiz ez zen gertatu hautestontziek orain ekarritako hauteskunde zatiketa bezalakorik. Hori dela eta, ezberdinen arteko akordioak egin beharra inposatzen da eta (ene!) oso zaila da hori egitea euren arteko harremana horrenbeste tenkatu eta gaiztotu denean.

Gaur egungo politikak gabezia penagarri bat duela deritzot. Kultura demokratiko baten gabezia, pentsamendu ezberdinak zintzotasunez eta ondorio guztiekin onartu eta toleratzearen aldekoa. Are gehiago helburua akordioak lortzeari begira elkarrizketan jardutea denean. Hala zioen Zygmunt Bauman soziologoak orain dela gutxi eginiko elkarrizketa batean: "benetako elkarrizketa ez da zu bezala pentsatzen duenarekin hitz egitea".

Hauteskunde-zatikatzea ez da berria beste leku batzuetan (gure udala baino ez da ikusi behar), eta esaten ari naizen guztia aplikagarria da baita beste leku horietan. Entzun dut tentsioa handiagotzen ari dela Laudioko plenoetan. Bost zinegotzirengatik gobernatuak izaten jarraitzen dugu (guztira 17 direnean), herriarentzat garrantzitsuak diren etorkizunerako proiektuak aurrera eramateko akordio handirik gabe. Bide luzea daukagu oraindik ibiltzeko behar bezalako minimo batzuetara iristeko Baumanek aipatzen duen benetako elkarrizketaren eremuan.

Iurdana
Tabernaria

Zertarako behar dugu Mercadona bat? Badaude denda ugari herrian, eta baita saltoki handiak ere. Horregatik uste dut soberan egongo litzatekeela. Hemengo merkataritza kaltetuko luke, Mercadonak fama handia hartu duelako eta merkeago saldu dezakeelako.

? _GALDERA

Laudion saltoki bat irekitzeko asmoa du Mercadonak. Zer deritzozu?

BIDEOA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.

Swati
Ikaslea

Ondo iruditzen zait denda berri bat irekitzea. Horrek jende bati lanpostu bat izateko aukera eman diezaioke, eta zerbitzu batzuk gertuago izatea ahalbidetu dezake. Prezioen merkealdi bat ekarri dezake baita, edo agian ez, hori jendeak ikusi beharko du.



Ibon
Kazetaria

Nik uste dut krisi garaietan merkatari txikiengana jo egin beharko genukeela, eurak direlako krisia pairatzen ari direnak. Nik uste dut Mercadona irekitzen dutenean hasieran jendea bertara joango dela, baina gero "moda" hori pasatzean betiko merkataritzara itzuliko direlakoan nago, konfiantzazkoak eta gertukoak direlako.

Juan Luis
Fabrikako langilea

Mercadona irekitzeak konpetentzia handiagotzea ekarri dezake, eta hori mesedegarria izan daiteke kontsumitzaileentzat. Dena den, ikusi beharko da ea zer nolako lan baldintzak ezartzen dituzten, lan-esplotazioarekin erlazionatutako zenbait kontu entzun ditut eta. Horrelako saltoki batek tokiko merkataritza txikia ere ito dezake.

Cristina
Jagolea

Niri, bezero moduan, ondo iruditzen zait denda gehiago jartzea. Baina beste aldetik ulertzen dut baita Mercadona bezalako saloki baten irekiera kaltegarria izan daitekeela tokiko merkataritza txikiarentzako, konpetentzia handitu egiten delako eta horrelako saltoki handien aurka lehiatzea zaila delako.

_gutunak

Rokodromoa Laudion

Aaron Garmendia (Laudio)

Kirola paisaia balitz Laudiokoa basamortua litzateke. Horrelakoa da tamalez gure lur eremuan topa dezakeguna, ezer hutsa. Bizitza gabekoak diruditen lurrak dira, baina erein izan denean uzta oparoak bildu izan ditugu.

Lur hauek badituzte hainbat jauntxo, lau urtean behin aldatu egiten direnak. Beraien boterea herriaren eskutik jasotzen dute, euren konpromisoengatik. Agintariz hainbatetan aldatu izan da baina harea hondar bihurtu eta hondarra harea bilakatu da soilik.

Zorionez, oasi txikiak topa ditzakegu gurean. Hainbatek gutxitan, batzuetan edo maiz ureztatu dutelako haien eremua. Urteak pasa dira, baina jauntxoek ez dute ura ekartzeko asmo handirik.

Negu lehor honetan elkarte bat, jauntxoen laguntzarik gabe, ur emari berri batekin dator. Likido garden kopurua handia dakar, oasi berri bat sortzeko adinakoa.

Ura eskalada da eta hura Goikogane mendi taldea. Herri gabezia horri aurre egiteko, bazkideek aho batez rokodromoa eraikitzea erabaki dute, banketxeen kreditua eskatu behar badute ere.

Eskalada maite duen baten eskerrik beroena. Mila esker.

Mercadonari ez!

Aitor Martinez (Laudio)

Bi dira Mercadonari baietza emateko erabiliko diren argudio nagusiak: 1) lanpostu berriak sortuko ditu, eta 2) prezioen beherakada ekarriko du. Biak partzialki eta epe batez zuzenak, osotasunean okerrak.

Mercadona ez da merkatu behar bat asetzera etorriko, merkatuan behar berriak sortzera baizik, eta ezinezko badu, daudenengatik lehiatzera. Lehia horretan prezioen beherakada produktuen kalitatearen edo/eta langileen soldaten beherakadan oinarritu behar da; ez soilik enpresa berrian, harekin lehiatu behar dutenetan ere eragingo du. Gainera, bi enpresa handi mantentzeko gaitasunik ez duen merkatuan, lehiak bat behera ekarriko du, ez baditu biak murrizten. Horrela, azpiegitura txikitu eta langileak berriz ere kanporatu, hasierara bueltatuz, hasieran baino egoera okerragoan: lan baldintzak eta soldata murriztuta. Enpresen erorketa krisiaren kausa eta ondorio da aldi berean: ekinbidea aurrera eramateko kapital birtuala eskatu edo/eta bueltatu ezinaren aurrean aurkitzen gara. Mercadonak epe laburrera ekar ditzakeen ustezko onurak epe ertainera kalte bilakatzen dira, beraz; kapitalismoan egungo ogia biharko miseria baita.

[Testua osorik: aiaraldea.eus/komunitatea/artikulua/mercadonari-ez]

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbioi Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // infor@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Laudio

Gazte ugari etorriko dira Laudiora akanpatzera. Argazkia: Aiaraldea

Gazte Danbada egingo dute martxoan Ernaik eta Aitzinak

ERREDAKZIOA I Aimar Gutierrez Bidarte

Laudion ospatuko da martxoaren 25etik 28ra Gazte Danbada; Aitzina eta Ernai gazte erakundeek antolatutako topagunea.

Lau egunetan eduki politikoa eta aisialdia uztartuko dituen ekimenaz gozatzeko aukera izango dute Laudion bilduko diren Euskal Herri osoko milaka gaztek. Tailer, hitzaldi eta eztabaida oparoez gain, musika eskaintza zabala ere iragarri dute.

"Esna harrapa gaitzala" da aurtengo Gazte Danbadaren leloa. Gazteek bizi duten egoera prekarioari aurre egiteko esna egotea ezinbestekoa dela adierazi dute antolatzaileek, gazteria itotzen duen zurrunbilotik irten eta bere bide propioari ekiteko. Bestelako herri eredu baten aldeko apustua jarri nahi dute mahai gainean Gazte Danbadan. Teoria eta praktikaren arteko koherentzia mantentzeko asmoa plazaratu dute antolatzaileek.

Aurreko edizioekiko hiru aldaketa nagusi dakartza aurtengo topaketak. Batetik, zaintza erdigunera ekartzeko apustua egingo dute. Bestetik, elikadurari dagokionez, bertoko produktuak kontsumituko dira. Eta azkenik, musikaren alorrean, Gazte Oihua dinamika jarriko dute aurten ere martxan, Euskal Herriko sortzaile gazteei plaza emateko lehiaketa egingo dute, parte hartuko duten talde guztiei Gazte Danbadan bertan jotzeko aukera eskainiz. Talde guztietatik 15 aukeratuko ditu publikoak, eta horietatik hiruk karpa nagusian jotzeko aukera izango dute.

Aurrekariak

2013ko martxoan Gazte Danbadaren lehen edizioa ospatu zen Urduñan eta 2007an Gazte Martxak Aiaraldea zeharkatu zuen, Untzagan hasita Laudion bukatzeko.

Hiltegia eraberritzeko lanak hasiko dituzte urtarrilean

Hiltegian hainbat lan egin dituzte azken urteotan. Argazkia: Aiaraldea

ERREDAKZIOA I

Astebete edo bi aste barru emango diete hasiera Laudioko hiltegia eraberritzeko lanei. Lanen bidez fatxaden eta hegalen eraberritze partziala gauzatuko dute.Obrak 33.030,05 euroko balioa izango du eta gauzatzea sei eta zortzi aste artean luzatuko da. Fatxadei dagokionez, agertzen dituzten arrakalak estaliko dituzte.

Arrakalek, eraikinaren alde estetikoa kaltetzen dute. Hegalen kasuan, aldiz, arteken eta amildutako zatien ondorioz egoera okerragoan daude, eta berrosatzea ezinbestekoa da. Lanak egin ondoren eraikina margotu ahal izateko. Horrez gain, estalkiko urak jasotzeko erretenak eta lurrera bideratzeko zorrotenak aldatuko dituzte.

Ezintasun fisikoa dutenentzako terma eta hondartza eskaintza ugaritu dute

ERREDAKZIOA I
Miren Ayesa Aranoa

COCEMFE Ezintasun Fisiko eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioak 16 urtetik gora eta %33 baino gehiagoko mugikortasun-urritasuna duten pertsonentzako hondartza eta terma eskaintza areagotuko du.

Oporraldietan parte hartzeko interesa dutenek udaleko Herritarren Arreta Bulegora jo beharko dute goizeko ordutegian.

Eskaera egiteko epea irteera eguna baino bi hilabete lehenago itxiko da. Hondartzara edo termetara joan nahi duenak 16 urtetik gora eta %33 baino gehiagoko mugikortasun-urritasuna izan beharko du. Hala eta guztiz ere, %50etik gorako urritasuna dutenek lehentasuna izaten jarraituko dutela adierazi dute arduradunek.

Ekainean eta maiatzean

Aurreikusitako bi txandetan edozein pertsonak parte hartu ahalko du, baita 2015eko programan parte hartu zutenek ere (2015eko ekaina-2016ko maiatza). Informazio gehiagorako www.cocemfe.es webgunea kontsulta daiteke.

elkarlan
asesores
www.elkarlan.eu
Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51
Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28
Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65
Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat
www.elkarseguro.com

Artziniega

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak Etnografia Museoa diruz lagundu dute

ERREDAKZIOA I

Artziniega Museoak Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko finantzazioa eskuratu du 2016 urterako. Hala, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan 30.000 euro aurreikusi dituzte eta Arabako Foru Aldundiak 35.000 eurorekin lagunduko du. Museoaren kudeatzailea den Artea Elkarte Etnografikoak egoera ekonomikoa azaltzen zuen gutuna bidali zien Eusko Legebiltzarreko, Batzar Nagusietako eta Udalbatzako talde politiko guztiei; aurrekontuetan Artziniega Museoaren proiektuaren finantzaziorako diru sail bat sar zezaten. Hala, bi instituzioen aurrekontuak eztabaidatu ziren bitartean, Legebiltzarrean PSE-EEk eta EH Bilduk aurreko urtean bezala Museora 30.000 euro bideratzeko eskaera egin zuten. Arabako Biltzar Nagusietan, berriz, EH Bilduk, PSE-EEk eta Irabazik 30.000€ inbertitzeko eskatu zuten, Ahal Duguk 35.000 euroko proposamena egin zuen bitartean

Errepideko konkorrek larrialdietan duten eragina aztertu dute

ERREDAKZIOA I
Xabi Zalbide Etxeberria

Artziniegatik Bilborako bidean dauden konkorrei buruzko azterlan oso bat burutu du Mateo Lafraguak. Larunbat honetan (urtarrilak 16) aurkeztuko du bere lana Artziniega Museoan.

19 konkor edo baden daude BI-2604 errepidearen Gordexolako tartean, eta guzti-guztiak gainditu behar dituzte Artziniegatik Bilbo aldera joan nahi duten herritarrek. Azken urteotan hainbat polemika piztu ditu auzi horrek, baina Gordexolako Udalak (berak baitu errepide horren gaineko eskumena) entzungor egin die protesta eta eskaerei eta abiadura kontrolatzeko sistema honi tinko eutsi dio.

_herriz herri

Urduña

SINADURA BILKETA

"Tren zerbitzua behar dut errehabilitazioa egiteko"

MARIA LUISA GOIKOETXEAk (Urduña, 1960) sinadura bilketa abiatu du Renfek tren zerbitzua egokitu dezan.

Maria Luisa Ibarrolak ezin du ibilgailua trenean sartu. / M. L. G.

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Maria Luisa Goikoetxeak burmuineko hemorragia izan zuen 2014an eta mugikortasun arazoak dauzka geroztik. Errehabilitazioa egiteko Bilbora jo behar du baina Renfek ez du bere zerbitzua egokitu.

Nola bururatu zitzaizun sinadura bilketa hastea?

Egunero idazten diet lankideei mezu elektroniko bat, asko lagundu nautelako. Nirekin oso ondo portatu dira. Kontua da nirekin lan egiten zuen fisioterapeuta batek aipatu zidala Abandon badaukatela mugikortasun-urritasuna duten pertsonentzako gailua -distantzia luzeko zerbitzuan erabiltzen dute-.

Telefonoa eskegi bezain laster hasi nintzen honekin. Egia esanda, faltan botatzen dut nire lana eta gainera errehabilitazio zentrora joateko erabili nahi dut trena.

Duela egun gutxi abiatu zenuen ekimena eta dagoeneko 1000 pertsona baino gehiagoren babesa jaso duzu. Zein da hurrengo urratsa?

Hoberena da ahalik eta gehien jasotzea. Dena den, ni ez naiz aditua eta sare sozialak ez ditut menperatzen. Ekimena abiatu nuenean ez nekien 1000 sinadura asko ziren edo ez. Ezusteko atsegina izan da jendearen erantzuna.

Jendearen harrera oso ona izan da eta gertatutakoaren alde ona da maitasun asko jaso dudala.

Zer da eskatzen duzuna?

Nik ez dut obra handirik eskatzen. Tren bakoitzeko soilik bagoi bat egokituko balute nahikoa litzateke. Arrapala bat jar dezakete geltoki bakoitzean aipatutako gailua jarri nahi ez badute. Nik ez dut uste hain zaila denik. Ez dut ulertzen zergatik ez duten oraindik egin, gainera jende orok esaten dit legez egin beharko luketela. Ez dakit zergatik enpresa publiko batek ez duen legea betetzen. Finean, ez dauka zentzurik...

Zer suposatzen du zuretzat trena ez erabiltzeak?

Urduñan harrapatuta nago. Jendearen menpe nago Urduñatik ateratzeko eta herria oso ederra bada ere bada bizitza kanpoan. Ospitaleratu nindutenean faltan botatzen nuen herria baina orain apur bat itota sentitzen naiz...

Zer nolako maiztasuna dauka zure errehabilitazio tratamenduak?

Astean hiru aldiz joan behar dut Bilbora, Aitamendiko zentrora. Aukera izan ezean etxean egiten dut errehabilitazioa, baina Bilbon jarraitu nahi dut, zehatzagoa baita -Yoga egokitua egiten dut, adibidez-, etxean mugatuta nago. Hipoterapia ere egiten dut Lezaman. Hori guztia baino lehen, Gurutzetan, Gorliz eta Arrasaten -Aitamendin- egon naiz ospitaleratuta. Trena erabiltzeko paradarik ez dudanez nire senarrak lan egiteari utzi behar izan dio eta semeak ikasi gabe geratu behar du ni Bilbora eramateko. Batzuetan ez dut egin errehabilitaziorik. Tren zerbitzua egokituko balute nire kabuz joateko parada izango nuke.

Amurrio

Maitasuna eta bizipoza landuko dituzte Aresketa Ikastolako jardunaldietan

ERREDAKZIOA I

"Pedagogia eta maitasuna. Bizipozaz hezi" lelopean Aresketa Ikastolak XVI. Hezkuntza Jardunaldi Irekia gauzatuko du urtarrilaren 18tik eta 22ra bitartean. Hitzaldiak 19:00etan izango dira Katekesi Aretoan eta sarrera doakoa izango da.

Lehenengo solasaldia Marta Macho-Stadlerrek gidatuko du; EHUko matematika doktorea da eta zientziarekiko jakin-mina eta grina pizten saiatuko da.

Bigarren hitzaldia "Umorea, adierazmena eta sormena" Nestor Muzo klown argentinarrak eskainiko du hurrengo egunean, urtarrilaren 19an, hain zuzen ere.

Asteazkenean, urtarrilaren 20an, Violeta Gallego psikologoaren txanda helduko da. Bere hitzaldiak jolasaren garrantzia goraipatuko du, umeek ikasten segi dezaten. "Ez bakarrik hezkuntza arautuan, baita emozioak lantzeko ere", azaldu dute.

Ostegunean, Jose Maria Toro irakasle eta trebatzaileak hitz egingo du. Aurreratu dutenez Lehen irakaskuntzan aritzeko beharrezkoa den grina berpiztea izango da hizlariaren helburua.

Joaquin Jimenez gorputz-psikoanalistak itxiko du jardunaldia. "Jakintzatik kargugabetzea. Hezitzailearen jarrera etikoa" izango da bere hitzaldiaren izenburua eta elkarrizketaren balioa nabarmenduko du.

Asfaltatze konponketak egitera 60.080 euro bideratu ditu udalak

Asfaltatze lanak egin dituzte. / Amurrioko Udala

ERREDAKZIOA I Irati Moreno Fernandez

Amurrioko udalak herri inguruko hainbat tokitan hobekuntzak egin ditu bide batzuk asfaltatuta. Zoru horiek egokitzeko egindako obren aurrekontua guztira 60.080,03 eurokoa izan da.

Asfaltatze lanak Etxegoien, Jose Pikatza, Larra, Mendiko eta Zaraten egin dituzte. Jose Pikatzako obran, Aiara Etorbidearekin bat egiten duen bidegurutzea igo dute espaloiarekin eta fresaketarekin berdindu ahal izateko.

Gainera, kaleko bide nagusia ere berritu dute. Zarate bidean, aldiz, hilerritik San Jose auzora doan zatia. Obra hori, auzokideek egindako eskaeraren ondorioz gauzatu dute, eremu horretarako sarbidea errazteko xedez.

IPARRALDEKO ZUBIAN KONPONKETAK: Amurrioko Udalak 7.041, 22 euro inbertitu ditu Iparralde geltokiaren gainetik igarotzen den zubia konpontzeko. Juan Aranoa eta Olako guneak lotzen ditu azpiegitura horrek, eta barandak jarri dituzte segurtasuna bermatzeko.

A—
—MU
RRIO
LOGOPEDIA

LOGOPEDIA AMURRIO,
10 urte baino gehiagoko esperientziadun zentroa:

· Ahots, hizkera, entzumen eta lengoaia tratamenduak.
· Ikasketa zailtasunak eta arreta goiztiarra.
· Ikasketarako laguntza: azpimarratzeko eta memoria lantzeko teknikak, eskumen elaborazioa...

Gainera, 2016ko urtarrilean, otsailean eta martxoan hiruhileko iraupeneko 2 tailer berri eskeiniko ditugu:

TAILERRA: Haur lengoaiaren estimulazioa (H.H 1-3)
TAILERRA: Irakurmenaren ulermena hobetu (L.H 2-6)

Erregistro zenb.; 208/15 Informazio gehiago: Tel. 665714511 logopedia.amurrio@gmail.com

_herriz herri

Aiara

Baserriak GPS sistemaren bitartez kokatzeko aukera egongo da

Baserriak aurkitzen lagunduko du GPS-ak. / Jose Antonio Romero

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Udalak Aiarako baserrien inbentarioa egin du eraikin bakoitzak GPSaren bitartez kokatu ahal izateko.

Hala, informatika aplikazio bat sortuko dute eta ibilgailuetako nabigatzaileentzako fitxategiak zein webgune bat. Horrek larrialdi kasuetan lekura heltzeko erraztasuna emango du.

Informatika programak baserri guztiak "Google maps" bidez kokatzea ahalbidetu du eta horietara heltzeko bideak zehaztuko ditu. Gainera, horretarako webgune bat sortuko da eta ibilgailuetako nabigatzaileetan erabiltzeko pdi fitxategiak (interes puntuak).

Larrialdiak

Aplikazio honen helburua larrialdi kasuetan baserria ondo kokatzea eta ahalik eta azkarren iristea da, egoera horiei erantzuteko beharrezkoa den denbora murriztea da, alegia.

Programa sortuko duen enpresa Geotech izango da eta Arabako Foru Aldundiak diruz lagunduko du.

Aiara, bigarren udalerria

Baserriak GPSren bidez kokatzeko proiektua Aramaion hasi zen eta Aiara bigarren gunea izango da. Ondoren, Araba osora zabalduko dute.

Osasun mapa komunitarioa osatzeko herritarren iritzia jasoko du Aiara Oinezek

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Aiara Oinez Foro soziosanitarioak mapa komunitarioa sortzeko ikerketa abiatu du. Horretarako, herritarren iritzia jasotzeko inkesta sortu du. Galderak aiaraoinez.es.tl webgunean, Saraube aldizkarian edota Foroaren Facebook orrialdean daude. Erantzunak Luiaondoko zein Arespalditzako osasun zentroetan, udal bulegoetan edo Arespalditzako farmazian jarri dituzten postontzietan utz daitezke urtarrilaren 31 arte.

Aiara Oinez pertsonen ongizatea hobetzeko sortu zen, helburu nagusia osasun komunitarioa da. Komunitatearekin zerikusia duten alderdiez eztabaidatu, informatu eta aholkatzen du foroak. Bertan, udalak, bizilagun, kultur eta kirol elkarteek eta oro har, kontzientziatuak dauden herritarrek parte hartzen dute.

Herritarren ekarpenen zain

Inkestako galderak hauek izango dira: Zer da zuretzat osasuna? Zure ustez, hirian beharrean herrian bizitzeak zein abantailak ditu osasunerako? Zer egin liteke herrian osasuna (fisikoa, mentala, soziala...) hobetzeko? Zein da zure ustez osasun arloan gure herriko arazorik garrantzitsuena? Zein baliabide sozial/ kultural ezagutzen dituzu zure komunitatean, zer jarduera egiten dituzu eta zure ustez, zein da komunitatearen parte-hartzea jarduera hauetan? Nola lagun zenezake komunitatearen osasuna hobetzen?

Aiaraldea

Tokiko elikagaien inguruko diagnostikoaren I. Fasea otsailean bukatuko dute

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Tokiko Elikagaien Kontseiluak -hau da, elikadura burujabetza sustatzeko plataformak- Nerbioigoiena Tokiko Elikagaien Sistemaren Diagnostikoaren I. Fasea abiatu du eta laster bukatutzat ematea espero dute; otsailean, alegia.Eskualdeko 9 udalek 10.800 euroko inbertsioa egin dute proiektuan. Horretarako, Arakaldok 300 euroko ekarpena egin du eta Amurriok 1.619,68 eurokoa, Aiarak 1.162,12 eurokoa, Arrankudiaga-Zollok 1.045,50 eurokoa, Artziniegak 1.098,21 eurokoa, Laudiok 2.129,65 eurokoa, Okondok 1.055,51 eurokoa, Orozkok 1.146,54 eurokoa eta Urduñak 1.242,84 eurokoa.

Aiarako Koadrilak kontratatu du diagnostikoa egiten ari den enpresa. Ekimen horren eskutik eskualdeko elikagaien autonomia areagotzea eta eskualdeko elikagai-zikloak ixteko urratsak eman nahi dituzte. Horrekin tokiko ekoizleak babestu eta elikagaiek garraiatzen dituzten ibilbideak murriztu nahi dituzte, besteak beste. Aldi berean, enplegurako txoko berriak identifikatzeko eta sortzeko aukera eman nahi dute, eta eskualdeko erakundeen arteko lankidetza areagotu.

Kontseiluaren osaera

Tokiko erakundeetako ordezkari politikoek eta teknikoek ez ezik, ekoizleek eta zenbait eragilek -kontsumitzaileek, adibidez-. ere parte hartzen dute Kontseiluan.

_sozioekonomia

Itziar
Larrazabal
ELA

_Argia

Piratak

ELAk pauso bat aurrera eman du, eta aurpegiak, izena eta abizenak jarri dizkie langileriarentzat eredu prekario eta zekena sustatzen dutenei. Yolanda Barcina (Telefónica), Pello Gibelalde (Adegi), Alberto García Erauzkin (Euskaltel), Jose Antonio Sarria (CEN), Josu Jon Imaz (Repsol), Florentino Perez (ACS), Ignacio Sanchez Galan (Iberdrola), Gregorio Villalabeitia (Kutxabank)... dira seinalatuetako batzuk.

Badakigu ez zaiela batere gustatu. Baliteke telefonoa hartu eta gobernuko beren lagunei deitu izana... Edo, are okerrago, euskal gobernuak ofizioz jardun izana.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu sailburua den Angel Toñak aitaren batean bere elkartasuna agertu die, eta sindikatuari egindakoa aurpegiratu dio. Gure ustez beste batzuen kontura dirua erruz irabazten dutenak piratak dira.

Beste gertakari batzuetan ere prestutasun berbera agertzea gustatuko litzaiguke. Esaterako, duela bi urte baino gehiago aurkeztu genuen Legegintza Herri Ekimenean.

Zertarako aurkeztu genuen? lanaren jarraipena bermatzeko subrogazioa ezartzeko, euskal eremuko lan-hitzarmenak aplikatzeko eta baldintza-agirietan jasotakoa betetzen ez bada zigorrak aurreikusteko.Pasa den abenduaren 4ko batzordearen ondoren argi daukagu HLEa ez dela aurrera aterako. Izan ere, gaur gaurkoz EH Bilduren babesa baino ez du jaso legegintza ekimen horrek.

AIARALDEKO ENPRESEN KUTSADURA

13 enpresa euren kutsadura datuak ematera behartuak

Aiaraldeko 13 fabrika daude enpresa kutsakorren PRTR erregistroan. 2014an Guardian izan zen hamahiruetatik atmosferara gas-emisio gehien egin zituena, 1543,257 tona guztira. Nubiola Pigmentos, berriz, uretara zabor gehien isuri zuena izan zen, 8,5 tona.

Guardian da aiaraldean atmosferara gas kutsakor gehien igortzen dituen enpresa. Argazkia: Iban Pagalday

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

1543,257 tona hondakin isuri zituen atmosferara Laudioko Guardian enpresaren fabrikak 2014an. Hori diote PRTR erregistroaren web-gunean argitaratutako datuek. Ke-emisio horien gehiengoa nitrogeno (836,22 tona) eta sufre (175,115 tona) oxidoek osatzen zuten. Nitrogeno oxido gasak eragin handia dauka berotegi-efektuaren sorreran.

Guardian ez da, baina, PRTR erregistroan azaltzen den Aiaraldeko enpresa bakarra. Beste hamabi ere agertzen dira, Laudioko lau (Nubiola Pigmentos, Aiala Vidrio, Jez eta Tubacex-en lantegiak) eta Amurrioko zortzi (Tubos Reunidos, Kime, Amurrio Ferrocarril y equipos, TTI Amurrio, Industria Auxiliar Alavesa (Inauxa), Castinox, Aceria de Álava eta Deguisa). Hamahiru lantegiek batera 3460,030 tona zabor bota zituzten zerura 2014an. Hondakinen gehiengoa (2266,782 tona) arestian[1] aipatutako nitrogeno oxidoaz konposatua zegoen.

Uretara eginiko isurketen[2] datuak ere jasotzen ditu PRTR erregistroak. Nubiola Pigmentos izan zen 2014an eskualdeko txapeldun mota horretako isurketetan, artsenikozko konposatuen 8,5 tona bota baitzituen uretara. Uretara isurketa handiak egin zituen enpresa bakanetako bat izan zen gainera, Aiala Vidriorekin batera. Azken horrek 104,692 kilo hidrokarburo lurrintsu bota zituen konketan behera.

Kutsadurarekin erlazionatutako beste hainbat datu interesgarri eskaintzen ditu PRTR erregistroak, tartean enpresa bakoitzak sortzen duen hondakin kopurua. Zifra altuak berriz ere: 123.400 tona hondakin sortu zituzten 2014an erregistroan azaltzen diren 13 lantegi aiaraldearrek, horietako 17.066 tona arriskutsu moduan katalogatuak.

Arlo horretan Tubos Reunidos Industrial S.L.U. enpresa gailendu[3] zen besteen artetik. Berak bakarrik 69.750 tona hondakin sortu zituen, horietatik 6.442 arriskutsuak.

Euskal Herrian, Petronor nagusi

Guardian enpresa Aiaraldeko txapelduna bada, Petronor da Euskal Herriko enpresa kutsatzaileen errege. Hala dio Berria egunkariak argitaratutako artikulu batek. Bertan azaltzen diren datuen arabera, 2013an 2,3 milioi CO^2 igorri zituen atmosferara Petronorren findegiak, Hego Euskal Herriko enpresa guztien artean isurtzen dutenaren % 10a.

Nubiola Pigmentos da ur gehien kutsatzen duena. 2014an artseniko konposatuen 8,5 tona isuri zituen

Azaroaren 15a gorriz markatutako eguna da PRTR erregistroaren egutegian. Egun horretan argitaratzen baititu Espainiar Gobernuaren Nekazaritza, Elikadura eta Ingurugiro Ministerioaren baitako erakunde horrek aurreko urteko emisio eta iturri kutsatzaileei buruzko datuak. Iaz ere ez zuen hutsik egin erregistroak, eta Estatu Espainiarreko ehunka fabriken datuak plazaratu zituen, aipatutako 13 aiaraldearrak tartean.

Enpresak derrigortuak daude PRTR erregistroak eskatzen duen informazioa ematera, baldin eta erregistroak ezartzen dituen muga batzuk (815/2013 errege dekretuan zehazten direnak) gainditzen badituzte.

3.460
TONA
gas isuri zituzten atmosferara 2014an PRTR erregistroan azaltzen diren Aiaraldeko lantegiek Iturria: PRTR

8.614
TONA
sustantzia jaurti zituzten uretara 2014an eskualdeko fabrikek. Nubiola Pigmentos eta Aiala Vidrio dira "kutsatzaile izarrak" Iturria: PRTR

17.066
TONA
Hondakin arriskutsu barraiatu zituzten 2014an PRTR erregistroan azaltzen diren Aiaraldeko lantegiek

Irudia: Freepik

Kontsumoa ere, altua

Kutsadura datuak soilik ez, enpresen energia-kontsumo datuak ere biltzen ditu PRTR erregistroak.

Esanguratsuak[3] dira, adibidez, ur-kontsumo datuak. Erregistroan azaltzen diren aiaraldeko 13 enpresek batera 1.103.999 metro kubiko ur xahutzen[4] dituzte. Tubos Reunidos da ur gehien erabiltzen duena: 76.730 litro hartzen ditu udal ur-saretik eta 253.520 azaleko ubidetik[5].

Gasolina gastua ere altua da fabriketan. 2014an guztira 520,69 tona gasolio erabili ziren aipatutako 13 enpresetan. Elektrizitate gastua handia da baita, hamahiru lantegi horien artean 599832,312 MWh gastatzen baitituzte.

Paris baino urrunago

Abendu hasieran ospatu zen Parisen COP21 mundu-gailurra. Klima aldaketaren aurkako Kyotoko protokoloa sinatu zuten herrialdeak bildu ziren bertan, mugimendu sozialek deituriko protestez inguraturik.

Helburu komun bat zehaztu zuten bilkura horretan: "neutraltasun klimatikora" heltzea. Hau da, gizakiek isurtzen dituzten gasen eta karbono xurgatzaileek (zuhaitzek zein horretarako diseinatutako aparailuek) hartzen dituztenen arteko oreka bat emango den egoerara iristea. Baina ez zuten helburu hori lortzeko epe zehatzik jarri, ez eta helburu hori betetzeko derrigortasunik ezarri ere. Aiaraldeko, Euskal Herriko zein munduko datuei begiratu bat ematerik baino ez dago helburu hori Paris baino askoz urrunago dagoela ohartzeko.

Tubos Reunidos da hondakin gehien sortzen dituen fabrika. 2014an 69.750 tona zabor sortu zituen, horietatik 6.442 arriskutsu moduan katalogatuak

ERREPORTAJE BEREZIA: *Gaiari buruzko erreportaje interaktiboa, datu gehiagorekin*

Hiztegi lagungarria

Arestian[1], lehen / Isurketa[2], jario / Gailendu[3], nagusitu / Esanguratsuak[3], nabarmen / Xahutu[4], gastatu / Ubide[5], ur-kanal

2014ko datuak, enpresaz enpresa

NUBIOLA PIGMENTOS S.L.

Urera isurketak: 8,51 tona
Hondakin arriskutsuak: 122 tona

AIALA VIDRIO S.A. (VIDRALA)

Atmosferara emisioak: 836,723 tona
Urera isurketak: 104,692 kg
Hondakin arriskutsuak: 274 tona

GUARDIAN LLODIO UNO S.L.

Atmosferara emisioak: 1543,257 tona
Hondakin arriskutsuak: 205 tona

JEZ SISTEMAS FERROVIARIOS S.L.

Hondakin arriskutsuak: 4 tona
Hondakin ez-arriskutsuak: 2.017 tona

TTI. LLODIO S.A. (TUBACEX TUBOS INOXIDABLES)



Hondakin arriskutsuak: 5.230 tona

ACERIA DE ALAVA S.A.

Atmosferara emisioak: 617,994 tona
Hondakin arriskutsuak: 2.237 tona
Hondakin ez-arriskutsuak: 33.390 tona

TUBOS REUNIDOS INDUSTRIAL S.L.U.

Atmosferara emisioak: 287,141 tona
Hondakin arriskutsuak: 6.442 tona
Hondakin ez-arriskutsuak: 63.308 tona

AMURRIO FERROCARRIL Y EQUIPOS S.A.

Atmosferara emisioak: 64,47638 kg
Hondakin arriskutsuak: 37 tona
Hondakin ez-arriskutsuak: 4.528 tona

TTI. AMURRIO S.A.

Hondakin arriskutsuak: 2.407 tona

INDUSTRIA AUXILIAR ALAVESA S.A (INAUXA)

Hondakin arriskutsuak: 47 tona
Hondakin ez arriskutsuak: 3.091 tona

CASTINOX S.A.

Hondakin arriskutsuak: 10 tona

DEGUISA

Hondakin arriskutsuak: 51 tona

OHARRA: IPTR erregistroak informazio publikoa izatera pasatzeko muga gainditzen duten kutsadura datuak baino ez ditu biltzen. Muga horiek gainditu gabe egiten diren isurketa eta abarrei buruzko daturik ez dago.

Kometa gorriak zeruan

Buztana da miru gorria eta beltza ezberdintzeko elementu nagusia. Miru gorriaren buztanak "v" letraren itxura handiagoa dauka. Argazkia: Alfredo Conde

"Kometa gorria" deitzen diote ingelesek miru gorriari. Hegan egiteko duen abileziagatik jarri diote ezizen hori. Uda iparraldean igarotzen dute miru gorriek, baina neguarekin batera ehunka gerturatzen dira Aiaraldera. Galzorian dagoen hegaztia da, ugariak baitira bere biziraupena jokoan jartzen duten faktoreak.

ERREDAKZIOA I Naturayala

Hegan egiten maisua da miru gorria. Buztana lema modura erabiltzen du, hegalak ia batere mugitu barik. Surf, parapente, dantza edo jolas egiten duela dirudi. Edo agian denetik apur bat. Horrexegatik ezagutzen dute ingelesek *red kite* izenarekin. Kometa gorria esaten diote, airean flotatu egiten duelako, zintzilik balego bezala.

Galzorian dagoen hegaztia da, oso urria, alegia, eta zorrozki babestua. Ez da gure eskualdean umetzen, baina sasoi honetan berrehundik gora ikus daitezke hainbat bazterretatik sakabanatuta: Agiñaga, Urduña, Zuaza, Lezama, Untzaga... Izan ere, ugaltze garaian bikotean bizi dira, baina Europako iparraldeko herrietan eguraldia kaskartzen[1] hasi orduko gurera etortzen zaizkigu negua igarotzera. Eta lo egiteko orduan kolonia handiak osatzen dituztenez, ikuskizuna liluragarria da.

Galzorian dagoen hegaztia da, oso urria. Ez da Aiaraldean umetzen, baina garai honetan berrehundik gora etortzen dira eskualdera, negua igarotzera

Baserri artean

Harraparien artean, miru gorria da hegalari trebeenetakoa. Eta gainera, oso erraza da hegaka ikustea, astiro-astiro eta lurzorutik metro gutxira joateko ohitura baitu; etengabe planeatzen eta bat-bateko norabide aldaketak egiten. Bere hegal-zabalera handia da, metro eta erditik gorakoa. Pisua, ordea, kilo betekoa besterik ez. Airean, beraz, oso energia gutxi gastatzen du.

Tamaina ertaineko harrapari honek eguna argitzearekin batera ekiten dio janaria topatzeari. Patxadaz aztertuko du lurraldea edozein sagutxo, sator, hegazti txiki, anfibio edo ornogabe ustekabean atzeman ahal izateko. Sarraskiari ere ez dio muzin[2] egingo, ezta autoek harrapatuta errepide bazterretan geratzen diren animalien gorpuei ere, arriskutsua izan arren. Gustuko du baserri inguruetatik eta abeltzaintza-ustiategietatik hurbil ibiltzea, eta sarritan ardi-txakur handiei ematen zaien okelaren hondakinen zain egon ohi da.

Hegalari aparta izateaz gain, hegazti ederra ere bada, erreportaje honetako argazkietan ikus daitekeenez. Akaso, gure faunako harraparirik dotoreena dena Afrikako iparraldean eta Europan baino ez da bizi. Munduko miru gorrien populazioaren % 90 Alemanian, Frantzian eta Espainian dago. Euskal Herrian ere badira umetzen diren bikote batzuk, baina ale gehienak migratzaileak dira, hau da, negupasa egitera etortzen dira iparretik.

Miru-buztana

Edonola ere, euskaldunentzat aspalditik aski ezaguna den hegaztia da. Zurgintzan, adibidez, miru-buztana deitzen zaio bi enbor lotzeko era bati, eta artzaintzan ardien belarriko markari ere miru-buztana esaten zaio. Arbasoen modura, beraz, buztanari erreparatuta jakin liteke hegaz doan harraparia mirua den ala ez. Eta areago, miru gorria ala miru beltza (Milvus migrans) ote den ere bai. Itxuraz bi miruen arteko antza handia da, gorria apur bat handixeagoa eta lumaje argiagoa duen arren. Baina buztanetan jarriz gero arreta, ez dago dudarik, gorriak urkilatuagoa (v itxura handiagoa) du beltzak baino. Horixe da espezie biak ezberdintzeko ezaugarri nagusietakoa. Nolanahi ere, sasoi honetan biak nahastea ezinezkoa da, miru beltza Afrikan igarotzen baitu negua, eta udaberrira arte ez da ostera ere itzuliko. Ordurako miru gorria joanda egongo da.

Galtzeko arriskuan dago miru gorria. Ehiztarien tiro galduak, elektrokuzioak, nekazaritzan erabiltzen diren pestizidak, habitaten suntsipena... hamaika dira kalte egiten dioten faktoreak

Zalantzarik gabe, miru gorria gure faunaren bitxietako bat da, baina zoritxarrez kinka larrian dago, galtzeko arriskuan. Ehiztarien tiro galduak, auto-harrapatzeak, elektrokuzioak, nekazaritzan erabiltzen diren pestizidak, habitaten suntsipena, pozoinaren erabilera... Hamaika dira kalte egiten dioten faktoreak. Gizakiak eragindakoak guztiak. Hortaz, gizakiena da egoera aldatzearen ardura miru gorria gure paisaiatik betiko gal ez dadin. Barkaezina litzateke mugaz gaindiko kometa gorri bizidunaren hegaldi paregabeaz gozatzeko aukerarik gabe geratzea.

Hiztegi lagungarria

Kaskartzen[1], okertzen / Muzin egin[2], uko egin

Poloniatik Euskal Herrira

Ehunka miru gorri datoz udazkenean Aiaraldera. Argazkia: Alfredo Conde

ERREDAKZIOA I Naturayala

Udazkenero berrehundik gora miru gorri etorri ohi da Aiaraldera. Nahiz eta euren bizimodua gero eta hobeto ezagutzen dugun, galdera ugari dugu oraindik argitu barik: Nondik nora doaz? Non ugaltzen dira? Zenbat denbora behar dute bidaian? Non ematen dute negua? Toki berberetara itzultzen al dira beti?

Itaun[1] horiei guztiei eta beste askori erantzuteko, 2014an eta 2015ean Seo/Birdlife erakundeko teknikariek bost miru gorri markatu zituzten Aiarako Agiñaga herrian Migra izeneko programa baliatuta. GPS irrati transmisore bana jarri zieten harrapari dotore hauen mugimenduak hobeto ezagutu ahal izateko, eta lortu egin dute. 'Tologorri' izenaz bataiatua izan zenak, adibidez, Poloniako ipar-mendebaldean igaro du aurtengo uda, Euskal Herritik 1.700 kilometrotara. 'Ungino' eta 'Agiñaga' Alemaniako iparraldetik ibili dira, eta 'Ataria' Suitzatik.

'Pobes', berriz, ez da sekula gurera bueltatuko. Zoritxarrez, markatu eta bi hilabetera hilik azaldu zen Frantzian pozoituta zegoen zerbait jateagatik.

Hiztegi lagungarria

Itaun[1], galdera / Sekula[2], inoiz

DATUAK

Izen zientifikoa: *Milvus milvus*

Egoera: Galzorian

Identifikazioa: Harrapari ertaina da, gorrixka, hegaletan orban argiak ditu eta uve itxurako buztana du

Neurriak: 60-66 cm bitarteko luzera eta 154-170 cm arteko hego-zabalera.

Zer jaten du? Ugaztun eta hegazti txikiak, sarraskia, anfibioak, arrainak eta ornogabeak

Non ikusi? Oso erraza da hegaka ikustea Aiaraldeko landazabaletan eta Gorobel mendilerroaren inguruan

Noiz ikusi? Udazkenean eta neguan lurretik hurbil planeatzen

Nondik dator? Europako iparraldetik etortzen dira gurera negua pasatzera

Antzeko espezieak: Miru beltza, *Milvus migrans*

Argazkia: Alfredo Conde

"Miru gorri negutar talderik onenetariko bat dugu Aiaraldean"

GUSTAVO ABASCAL ESCUZA (Amurrio, 1967) Naturayalako kidea eta Miru Gorriaren Estatuko III. Erroldako koordinatzailea da.

Urteak daramatza Abascalek miru gorrien ibilbideak ikertzen. / Alfredo Conde

ERREDAKZIOA I Naturayala

Miru gorria espezie arrunta dugu gure inguruan, baina ez da berton umetzen, zergatik?

Oso urria da Iberiar Penintsulako gune atlantikoan ugaltzen diren miru gorrien populazioa. Gure ingurua oso egokia dela uste dugun arren, ez dago datu ziurrik Aiaraldean ugaltzen dela esateko. Mena haranean, adibidez, umetu egiten da.

Zer egin dezakegu gure eskualdean umetu dadin?

Beharrezkoa da miru gorriaren populazioari kalte egiten dioten faktoreak desagerraraztea joera negatiboari buelta eman ahal izateko. Dena den, inoiz umetzen bada ere, oso gutxi izango dira.

Udazkenean asko dira negua igarotzera datozkigunak...

Euskal Herriko populazio negutarra Erdialdeko Europatik (Alemania, Frantzia eta Polonia) etorri ohi da, eta 2014ko erroldaren arabera 900 bat alez osatuta dago. Zorionez, zifra hori sano[1] hazi da azken hogei urteotan.

Eta Aiaraldean?

Negua igarotzera Aiaraldera datozkigun miru gorrien kopuruak ere gora egin du nabarmen. Gogoan daukat 90. hamarkadaren hasieran bitxikeria zela miru gorria ikustea. Gaur egun, aldiz, guztira berrehundik gora aurki ditzakegu eskualdeko lo-lekuetan. Aiaraldea Euskadiko tokirik onenetarikoa da hegaztientzat negua igarotzeko.

Nora jo beharko genuke miruak ikusteko?

Oso erraz ikus daitezke. Lo egiteko orduan taldeak sortzen dituzte elkarrekin gaua pasatzeko. Agiñagan, Lezaman, Urduñan eta Zuahtzan, adibidez, lo-lekuak aurkitu ditugu. Batzuetan dozena bat ale besterik ez dago, baina besteetan, ia ehun ere bai, Horrelako zen, esate baterako, Untzagakoa. Laburbilduz, baserri inguruetan, landa zabaletan, larreetan eta edozein gune irekitan ikus daitezke.

> *"Oso erraz ikus daitezke. Batzuetan dozena bat ale besterik ez dago, baina, besteetan, ia ehun ere bai"*

Galzorian dagoen harraparia da, zergatik?

Galzorian[2] dago, bai, XX. mendeko amaieratik jasan duen beherakada ikaragarriaren ondorioz. Ia erdira gutxitu da espezie honen populazioa ordutik hona. Zergatik? Ba, linea elektrikoetan elektrokutatzen direlako, lurzoruaren erabilera aldatu egiten dugulako, edo pozoitutako jakiak erabiltzen direlako. Agiñagan markatutako 'Pobes' izenekoa, esaterako, pozoia janda hil zen Alsazian.

Hiztegi lagungarria

Sano[1], asko / Galzorian[2], galtzeko arriskuan

_kultura

BIDEO-JOKOAK

"Euskarazko bideo-joko zaparrada eragiteko helburuarekin sortu genuen Game Erauntsia"

URTZI ORDRIOZOLA LIZASO (Zarautz, 1986) Laudion bizi den informatikaria da. Duela urtebete Game Erauntsia proiektua sortu zuen lagun talde batekin, bideo-jokoetan euskaraz aritzeko gune baten falta sumatzen zutelako.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Zergatik Game Erauntsia? Nondik dator izen hori?

"Game Erauntsia" bi hitzez osatua dago. Lehena ingelesetik dator eta "jokoa" esan nahi du. Euskarazkoa da bigarrena, eta "zaparrada" esan nahi du. Euskarazko bideo-joko zaparrada sortzea zen helburua. 2014ko iraila amaieran sortu genuen proiektua lagun talde batek, Interneten bideo-jokotan euskaraz aritzeko zegoen gabeziaz[1] ohartuta.

Hasierako helburua txikia zen, lagun batzuen bideo-jokoei buruzko euskarazko bideoak sarean eskegitzea. Hortik hasi ginen. Hasieran ez genuen komunitatea sortzeko asmorik, baina pixkanaka-pixkanaka handituz joan da proiektua. Jende berria batu da eta ideia berriak sortzen hasi dira, gaur egungo egoerara iritsi arte. Gaur egun komunitate bat garela esan dezakegu, horretan gabiltza: Bideo-jokoei buruz sarean euskaraz aritzen eta zegoen gabezia hori estaltzen.

Bide luzea urtebetean egiteko. Zeintzuk dira eman dituzuen pausoak?

Nahiko arrapaladan[2] etorri da dena. Guk ez genuen ezer espero, webgune sinple bat eraikitzea baino ez genuen buruan. Baina pixkanaka-pixkanaka jendea gerturatzen hasi zen, ideia eta helburuak handitzen hasi ziren eta azkenean Durangoko Azokako 2014ko edizioan aurkezpen bat egitera animatu ginen.

Horra jende gehiago hurbildu zen. Minecraft jokoan aritzeko euskarazko zerbitzari bat martxan jartzeko proposamena iritsi zitzaigun ondoren, eta urte hasierarekin batera jarri genuen martxan. GTB telebista etorri zen gero. Durangoko Azokaren azken edizioan goiz osoko tailer bat prestatu genuen... espero genuena baino onarpen handiagoa izan dugu. Hasi baino ez gara egin, baina gustura gaude.

Harrituta izandako harrerarekin?

Ba bai. Hiru lagunek hasi genuen proiektua eta urte amaierarako 15 laguneko lan-taldea osatua genuen. Espero genuena, topikoetan erorita, zera zen: gehienak bizkaitarrak edo gipuzkoarrak izatea.

> "Nahiko arrapaladan etorri da dena. Askotariko jendea gerturatu da komunitatera, espero genuena baino onarpen handiagoa izan dugu"

> "Euskarazko bideo-jokogintzan oso gutxi dago eginda, baina pixkanaka ari dira proiektuak sortzen"

Baina ez da guztiz horrela izan, badaude arabar eta nafarrak ere. Iparraldeko jendea falta zaigu, baina askotariko jendea dago, eta espero ez genuen lekuetatik ateratakoa gainera. Zentzu horretan, bai, sorpresa ugari jaso ditugu.

Zein da euskarazko bideo-jokoen ekoizpenaren egoera?

Egia esatea nahi baduzu, oso gutxi dago eginda. Baina pixkanaka-pixkanaka eta urtetik urtera gauza berriak ikusten ditugu, eta badirudi hemengo garatzaileak euskara kontuan izaten ari direla.

Egia da orain arte garatu den ia dena umeei bideratua dagoela, bideo-joko didaktikoak. Baina pixkanaka ikusten dira bestelako proiektuak. Badakit garatzaileek buruan duten lehen hizkuntza ingelesa dela normalean, ingelesez programatu ohi delako eta beste hizkuntzak geroago sartzen direlako. Ikusten dira ingelesez eginiko joko handiak, gero gaztelaniaz azpititulatzen direnak. Baina hemendik animatu nahiko nituzke garatzaileak bideo-jokoak euskaraz egitera, azpititulatuta bada ere.

2016a hasi berri, zer erronka dituzue mahai gainean?

Baditugu 2016rako erronka batzuk. Oraindik ez ditugu helburu zehatzak adostu, baina. Zerbitzu berriak jarri nahi ditugu martxan, beste joko baten zerbitzaria tartean. Mugikorrerako aplikazio bat ere garatzen gabiltza... baina punturik garrantzitsuena da hausnarketa prozesu txiki bat martxan jartzera goazela. Guk euskaraz jolasten dugu eta gainontzeko jendea animatu nahi dugu gurekin euskaraz jolastera.

Hori lortzeko lana egin behar dugula ikusten dugu, jolasteko aukera eman arren jendea erakartzeko zailtasunak ditugulako. Hori nola gainditu aztertu beharko dugu.

Hiztegi lagungarria

Gabezia[1], falta / Arrapaladan[2], bat batean, azkar

GAME ERAUNTSIA

Hainbat egitasmo eta atal topatu daitezke gamerauntsia.info atarian.

GTB WEB TELEBISTA
Astero egiten duten web-telebista saioa, bideo-jokoei buruzkoa

BLOGA
Bideo-jokoei buruzko edukiak igotzeko atala.

FOROA
Bideo-jokoei buruzko debateak izateko espazioa.

BIDEO IRUZKINDUAK
Bideo-jokoen trukuak eta antzekoak erakusten dituzten bideoak.

TXAPELKETAK
Erabiltzaileen arteko txapelketak bideratzeko atala, egutegi eta sailkapenekin.

MINECRAFT ZERBITZARIA
Minecraft jokoan euskaraz aritzeko zerbitzaria. 300 erabiltzaile baino gehiago ditu eta doakoa da. Aurten Counter Strike edo antzeko joko batentzako zerbitzaria ere martxan jartzeko asmoa dute.

Asier
Amondo
AEK

_Hankamotz

Hurrengo urtera arte

Jo an dira Gabonak. Oparitu beharreko guztia oparitu dugu, oraindik beherapenak gelditzen zaizkigun arren. Eta opariak egin eta jasotzeko garai honetan era guztietako astakeriak ikusteko aukera izan dut, euskarari dagokionez behinik behin. Horrelakoak irakurri ahal izan ditut han hemen Euskal Herriaren luze zabaleran "Venta de decimos/salmenta diogu", "Cazadoras 50%/Ehiztariak %50". Hauek bi baino ez dira gehiago baitaude. Horrelakoak ikusten nituen bakoitzean, sutu egiten nintzen, egun horrelako itzulpenak egiteko hainbat tresna ditugu, baina mesedez ez erabili edozein gauza, egongo da inguruan euskara dakien norbait, irizpide zuzenagoa izan dezakeena horrelako terminoak itzultzeko orduan. Eta edozein itzultzaile erabiltzen bada ondo legoke hitza egoki idaztea, decimos/décimos kasuan oso garrantzitsua baita azentuaren nabardura, horrek hitzaren esanahia erabat aldatzen baitu.

Beraz, urte berriarekin horrelakoak bota dituzuenoi eskatuko nizueke: erretzeari utzi, kirola egin,... urtea asmo berriekin hasten baitugu, eta asmo horiei asmo berria gehitzea: "euskara egoki eta jatorrean plazaratuko dugu publizitatea". Horrela euskaldunok saltoki horietara hurbilduko gara, baina antipublizitate egingo baduzue gugandik ezin izango duzue "zentimorik" jaso berriro ere euskara berrogeigarren mailan kokatzen duzuelako, desprestigiatu egiten duzuelako, eta euskaldunon hizkuntz eskubideak urratzen dituzuelako. 2016ko asmoetan azken hauek jasoko zenituztelakoan... Olentzero

_kultura

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

Star Wars VII. atala: Indarraren iratzartzea

Zuzendaria: J.J. Abrams
Gidoilaria: J.J. Abrams, Lawrence Kasdan eta Michael Arndt
Aktoreak: Daisy Ridley, John Boyega, Harrison Ford...
Herrialdea: AEB
Iraupena: 135 minutu

Filmaren magia ez apurtzeko, ezer gutxi kontatu daiteke pelikula honen inguruan. Agian, 30 urte pasa direla Endorreko gudutik eta orain Inperioa k"Lehenengo Ordena" izena duela. Nahiz eta erreboltariek bigarren "Heriotzako Izarra" deuseztatu eta enperadorea hil, galaxian zehar badira oraindik gertakari horien berri ez dutenak, eta ondorioz Indarra eta Jedi zaldunen itzulera ezagutzen ez dutenak. Horien artean, Jakku planetan, Rey gaztea. Bere familiaren itzulera itxaroten bizi den neska bat…

Ikusgarria. Zoragarria. Liluragarria. Benetako gozamena. Lau adjektibo lau adibide. Indarra bueltan da eta berarekin batera Star Wars sagaren xarma eta magia. Bikaina izan da, dudarik gabe, JJ Abrams zuzendariaren lana. Harena eta Lawrence Kasdan gidoilariarena da meritu osoa. Ez da urte honetako filmik onena, baina bai ikusi beharreko bat. Han Solo (Harrison Ford), Leia (Carrie Fisher), Luke Skywalker (Mark Hamill) eta Chewbaccaren itzulerak jarraitzaile guztien ilusioen itzulera izango dira, eurek bai dira (Finn, Rey eta Poe Dameron pertsonai berriekin batera) istorioaren arima.

Agian, Izarretako Gerren antza handia dauka filma honek, baina hori da ideia. Kondaira berri bat hastea jatorriaren xarma berreskuratuz. ***Filma Amurrio Antzokian eskainiko dute hilaren 25an, 20:00etan.***

PINTURA:

Antonio Aldamaren lanak Bilboko Itsasadarra Museoan ikusgai, #Burdinkolorea-n

Gaur (urtarrilak 14) inauguratuko da Bilboko Itsasadarra Museoan #Burdinkolorea erakusketa. Hiru artistaren lanak bilduko ditu esposizio horrek, tartean Antonio Aldama margolari laudioarrarenak. Bilbo itsastar eta industrialarekiko duen ikuspegia islatuko du Aldamak bertan.



LITERATURA:

Aiaraldean girotutako umorezko eleberria argitaratu du Amado Gomez Ugartek

Amado Gomez Ugarte idazle laudioarrak nobela berri bat plazaratu du. *Los verdes campos* du izena eta Aiaraldean girotutako istorio umoretsu bat kontatzen du. Alfonso XIII.a Erregea, Urquijo markesa eta Alejandro Lerroux bezalako pertsonaia historikoak azaltzen dira.



MUSIKA

Burubio, musikariek sortzaileentzako sortutako egitasmoa

Pabilioi bat alokatu dute Burubio elkarteko kideek, besteak beste, eskualdeko musikari eta sortzaileentzako entsegu-gelak edota grabaketa estudioa abian jartzeko.



Grabaketa estudioa ere jarri dute martxan Burubioko kideek / Burubio elkartea

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Amurrioko mendi bat da Burubio, eta mendi horretatik hurbil dagoen pabilioi batean sortu da izen bereko elkartea. Pabilioi horretan dauden entsegu lokaletan dabiltzan musika-taldeetako kideek sortu dute, duela bi hilabete pabilioi osoa alokatzeko aukera mahai gainean jarri zitzaienean.

Hala ere, aspaldikoak dira elkartea sortzeko dituzten arrazoiak. "Duela lau urte inguru Udalak Goya etxean zeuden lokalak uzteko agindua eman zigun, eta orduan Amurrioko talde askok lokal pribatuetara jo behar izan genuen". Hala ekarri du gogora Endika Diazek, proiektuaren sustatzaileetako[1] batek.

Grabaketa estudioa

Eraikinak, baina, ez ditu entsegu lokalak soilik. Badaude baita kamerinoak, grabaketa estudioa eta areto zabal bat ere (eszenatoki eta guzti) antzerkiak edota zuzeneko emanaldiak entseatzeko erabili daitekeena. Grabaketa estudioa elkarteko zein elkartetik kanpoko musika taldeen diskoak grabatzeko erabili nahi dute. "Ez da estudio profesionala", adierazi du Burubioko kidea den Egoitz Palaciosek, "baina material eta gela egokiak ditugu, proiektu onak garatzeko haina[2]".

Musikariek egina

Momentu honetan egitasmoa zabaltzen dihardute elkarteko kideek. "Proiektura batzeko interesa izan dezakeen jendearekin harremanetan jartzen ari gara", azaldu du Palaciosek. Burubioko kideek azpimarratu dute proiektua irabazi asmorik gabekoa dela, musikariek sortzaileentzako pentsatua. Zentsu horretan, adierazi dute estudiotik lortutako dirua edota entsegu lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kuotak pabilioiaren alokairu gastuei aurre egiteko erabiliko diztuztela.

Hiztegi lagungarria

Sustatzaile[1], bultzatzaile / Haina[2], nahikoa

Reggaea nagusi 10 musikarik osatutako "Gwa Ya" taldearen lehen diskoan

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldeko hainbat musikarik osatutako Gwa Ya taldeak lehendabiziko diskoa argitaratu du.

Besteak beste, Xabi Eguiluz, Txema Suarez, Ibai Madaria, Iñaki Ria eta Ramon Diazurduñarrek hartzen dute parte taldean. Guztira, 10 musikari elkartu ditu taldeak.

Musika estiloari dagokionez, reggae soinuak nagusitzen dira diskoan. Aurkeztu berri duten lanak *Individiuos de la misma especie* izena du, eta 9 abesti bildu dituzte. Aleak Interneten eta Aiaraldeko hainbat tabernatan daude eskura, hamar euroren truke . Gwa Ya musika taldea duela bi urte sortu zen, eta hainbat tokitan eskaini dituzte kontzertuak dagoeneko, eskualdean zein eskualdetik kanpo.

Jon Muñoz
IRAKASLEA

_Lurpetik

Ume soldadua (II)

Gudalozte karlistetan borrokan zebilen ume laudioarrak ofizial liberalaren bizia barkatu ondoren, beste karlistek hil ez zezaten, hau kupel batean sartu eta zelaian behera bultzatu zuen, gerra eremutik urrunduz. Ume soldadua pozik zegoen ekintza on bat burutu zuelako, baina bere barruan galdera batzuk sortu zitzaizkion: beste karlista batek egindakoa ikusiko zuen? Kupelarekin zer gertatuko zen? Alderantziz izan balitz ofizial liberalak bizia barkatuko zion?

Umeak gerran borrokatzen jarraitu zuen, ofizial liberalaren gertakaria ahaztuz, eta gerraz nazkatuta birritan ihes egiten saiatu zen. Saiatu zen, baina ingurua ezezaguna zenez bietan soldadu karlistekin topatu eta galdu zelaren aitzakia erabilita bere unitatera eraman zuten. Bere unitatera bueltatuta liberalen posizioak eta ingurua behatzen hasi zen eta ziur egotearekin batera hirugarren ihesaldiari ekin zion. Oraingokoan liberalekin aurkitu zen eta atxilotuta frontetik urrun eraman zuten, Lizarrara.

Lizarran, atxilotuta zegoela, soldadu liberal batek "Jeneralaren aurrean lerrokatu zaitezte!" oihukatu eta presoak lerroetan jarri ziren, zer gertatuko zen jakin gabe. Jenerala, presoen aurpegiak begiratuz, lerroetatik pasatzen hasi zen, gure umearen aurrera heldu zen arte. Une horretan gelditu eta "hau nire bulegora eraman" esan zien soldadu liberalei. Gure umea beldurtuta zegoen, berarekin zer egingo zuten ez zekielako. Jeneralaren aurrean zegoenean honek zera esan zion umeari "ez dakit nola deitzen zaren ezta nor zaren, baina argi dudana da zure aurpegia ezingo zaidala ahaztu". Elkarrizketan atera ziren kontuekin umea berehala konturatu zen bizia barkatu zion pertsona zela jenerala, biak besarkada bero batean batu zirelarik.

_kirola

MOTOKROSA

Aiararra da Euskal Herriko motokros kirolaririk gazteena

ENEKO MARTINEZek (Murga, 2008) 7 urte egin berri ditu eta motokrosean oso ondo aritzen da. Adin horretako Euskal Herriko ume bakarra da kirol horretan aritzen dena eta estatuko txapelketetan ere askotan izan da gazteena. 2015eko martxoan hasi zen lehiatzen.

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Lau urte besterik ez zituen Enekok motorrera igo zen lehen aldian. Bere lehen lasterketa Espainiako Txapelketa izan zen. Kirolaririk gazteena zen, eta aurretik sekula lehiatu gabe. Bertan 12 edo 13. postua lortu zuen (ez du zehazki gogoratzen zein izan zen), eta hori izan zen motorrarekin izan zuen lehen kontaktua, bere aitak baieztatu duenez. Horren ostean, gertuago edo urrunago lehiatzen dihardu gazteak; Madrilen, Gaztela eta Leonen, La Riojan, Katalunian eta Leridan batez ere. Lasterketa ia guztietan aurreko postuetan egotea lortu du gazteak.

Bere aitaren arabera, Kataluniako kirolariek oso maila altua dutea. Izan ere, han motokrosak futbola bezain besteko indarra dauka. Hori dela eta, datorren urteari begira bertan gehiago lehiatzea gustatuko litzaioke Enekori.

Guztira 3 motor ditu gazteak. Bat entrenatzeko erabiltzen du eta bestea lehiatzeko. Orain, gainera, trialean hasi da eta horretarako beste motor bat du. Asteartero eta larunbat edo igande goizetan irakasle batekin dago trialean ikasten, gazteari asko gustatzen zaion kategoria baita. Datorren urtean ere modalitate horretan lehiatu nahiko luke.

Enekori motokrosetik gehien gustatzen zaiona saltoak egitea da. Etorkizunean salto bikoitzak egitea gustatuko litzaioke; hau da, bi menditxo txiki salto bakar batean pasatu ahal izatea. Erortzea da bere beldurrik handiena. "Erortzea ez zait batere gustatzen eta kontuzibili behar dut, erortzekotan zerbait apurtu dezakedalako eta ezingo nintzatekeelako motokrosean aritu denboraldi batez". Gainera, txapelketen hasieran askotan ez du bere burua kapaz ikusten besteek egiten dutena egin ahal izateko, eta horrek ere izutzen[1] du, baina gero dena egiteko gai dela konturatzen da.

"Motorretik erortzea eta min egitea da nire beldurrik handiena"

"Etorkizunean salto bikoitzak egiten ikastea gustatuko litzaidake"

Entrenamenduak oinarri

Entrenatzeko zirkuitu txiki bat du Etxaurrenen. Baina argi dago batzuetan kanpora jo behar duela beste zirkuitu batean aritu ahal izateko. Aiaraldean ez dago lekurik motokrosean entrenatzeko. Aitarekin aritzen da, baina urte bat daramatzate elkarrekin eta Enekok asko hobetu duenez, Euskadiko txapeldunarekin entrenatzen du azken aldian. "Niri motorrak asko gustatzen zaizkit eta oinarrizkoa dena erakutsi diot, baina oso mundu konplexua da eta hainbat kontutan ezin diot lagundu" azaldu du bere aitak.

Gaztea, baina guztirako kapaza

Ez da erraza 7 urteko ume batentzat eta haren familiarentzat urrunera jo behar izatea lehiatu ahal izateko. Familia osoa txapelketetara moldatzen da: asteburuetan denak karabanan sartu eta behar den herrira doaz. Enekok eta haren arrebak bidaiak aprobetxatzen dituzte ikasteko, gainerako denbora ia guztia entrenatzen eta lehiatzen ematen baitute. Normalean ia astebururo mugitzen dira.

Lagunek eta irakasleek ere umeari laguntzen diotela esan du bere aitak. Astero birritan entrenatzen du Enekok, astearte eta ostegunetan. Neguan argiaren presentzia garrantzitsua da eta hori dela eta, bi egun horietako batean ez doa klasera arratsaldez, baina bere lagunek eta irakasleek oso ondo zaintzen dute eta horri esker ez du inolako arazorik izaten.

"Ilusioak ez dauka preziorik"

Kontuak aterata, kirol garesti samarra[2] dela argi dago: motorrek eta horiek zaintzeak, lizentziek, izen-emateek eta asteburuko bidaia guztiek, azken finean, gastu handia suposatzen dute. Bere aitaren arabera, Enekok oso ondo daki zer nolako gastua suposatzen duen guzti horrek eta "umea aurrera doala" nabaritzen da. "Ilusioz beterik dago, nahiz eta entrenamenduen kontu guztia oso gogorra egiten zaion; ezinezkoa da Eneko horrela egonda, gastu horiei aurre ez egitea", azaldu du.

Atzerrian ere, euskalduna

Madrilgo indargetzaile[3] enpresa batek bere taldean sartzeko aukera eman dio Enekori. Baina enpresak baldintza bat zuen: Madrilgoa balitz bezala lehiatu behar zuen gazteak. Enekok oso argi du euskal herritarra dela. Gainera, ezagutzen duen pertsona berri bakoitzari nongoa den galdetzen dio, bera euskalduna dela erantzun ahal izateko. Hori dela eta, oraingoz, taldean ez sartzea erabaki du, berak euskaldun gisa lehiatu nahi duelako.

EGITARUA: ***Eneko Martinezi elkarrizketa***

Hiztegi lagungarria

Izutu[1], beldurtu / Samar[2], nahiko / Indargetzaile[3] motelgailu

KOMUNITATEA

Kamarakak bere pilotari berriak aurkeztu ditu

"Arrankudiagako Kamaraka Pilota Elkarteak urtarrilaren 2an aurkeztu zituen taldeko pilotari berriak".

Portugalera bidaia prestatzen dabil Mendiko Lagunak Taldeak

"Aste Santuko bidaia martxoaren 24tik apirilaren 1a bitartean izango da".

CD Altzarratek ez du garaipena lortu asteburu honetako partidan

"Gogorra eta lehiatua aurreikusten zen partida gure nesken porrotarekin amaitu zen igandean San Martinen".

XX. Herriaren Lehiaketa

Urtarrilaren 9ko partiden emaitzak

Gaztetxoak:
Muguruza– Barbara 22
Orue – Duandikoetxea 13

19 urtez azpikoak:
Salaberria - Aranguren 11
Zubizarreta - Garmendia 22

Seniorrak:
Azpiri - Gorrotxategi 22
Iriarte– Linzoain 7

+info: Argitaratu zure kirol taldeari buruzko edukiak aiaraldea.eus-eko komunitatearen leihoan

_kirola

ATLETISMOA:

Arabako Kros Txapelketa antolatuko du Laudioko Atletismo Klubak Okondon hilaren 17an

10 lasterketa egongo dira, goizeko 10:00etan hasi eta 13:10ean izango da azkena. Kategoria guztiak lehiatuko dira. Bi zirkuitu egongo dira. Bata txikia (690 metro) eta bestea handia, 1424 metrokoa. Txikienek 700 metro egin beharko dituzte; senior eta promesek, aldiz, 9.900 metro egingo dituzte.

ARETO HOCKEYA:

Areto Hockeyeko Euskadiko Txapelketa irabazi du Ganbegi 6-2 hockey taldeak

Santo Tomas Lizeoa menderatu zuten laudioarrek; 4-2 eta 1-5 puntuazioekin. Horri esker, Ganbegi Espainiako Sektor Fasean parte hartzeko sailkatu da, Fase hori Laudion jokatuko dute datorren urtarrilaren 23an eta 24an, Espaniako Federazioari laguntza eskatu ondoren,

FUTBOLA:

Futbol taldeko jokalari eta teknikarien kromo sorta aurkeztu du CD Orduñak

Guztira, 210 kromo egin dituzte. Kromoak Arantza liburu-dendan, Partxis goxoki-dendan eta Nanu okindegian jarriko dituzte salgai. Gutun-azal bakoitzean 6 kromo egongo dira, eta euro batean salduko dituzte. Azaldu dutenez, fitxa bakoitzean jokalariaren datuak, argazkia eta taldea jaso dituzte.

PALA

Zuriñe Etxeberria eta Naia Ugarrizak Bizkaiko Pala Txapelketa irabazi dute

ERREDAKZIOA I
Endika Arribas Gulias

Zuriñe Etxebarria Plazaolak eta Naia Ugarriza Astobizak eskolar mailako "kadete–haurren" eta Euskadiko haurren mailako pala txapelketak irabazi zituzten aurreko denboraldian.

Bizkaiko Txapelketan 10 bikote aritu ziren. Orozkoko Olgetan klubeko lau bikoteetatik bi sailkatu ziren lau onenen artean. Hori dela-eta, Euskal Herriko txapelketa jokatuko du Olgetaneko taldeak.

ZIKLOKROSA

Luisa Ibarrolak Espainiako Txapelketa irabazi du

Podiumeko lehen postua lotu zuen Ibarrolak.

ERREDAKZIOA I Irati Moreno Fernandez

Asteburuan egin da Torrelavegan Espainiako Ziklokros Txapelketa. Larunbat goizean lehiatu zen Luisa Ibarrola kadete saratxoarra.

Elite Sub 23, junior eta kadete kategoriek elkarrekin egin zuten lasterketaren irteera, baina kadeteek buelta bat gutxiago eman behar izan zuten. Ibarrolak ez zuen irteera oso ona egin, baina azkenean, bere etsai nagusia zena, Saio Gil (Bizkaia), harrapatzea lortu zuen. Azkenean Gil baino 1:08 minutu lehenago helmugaratu zen Ibarrola. "Bien arteko borroka gehiago egongo zela uste nuen, baina atzean uztean nahiko erraz lortu nuen", baieztatu du kirolariak.

Garaipenarekin oso pozik dagoela gaineratu du saratxoarrak. Iosu Isasi arespalditzarrak ere podiuma egitea lortu zuen, 3.postuarekin.

Julen Latorre 5. postuan

Irteera oso ona egin arren, Julen Latorre amurrioarrak erorketa bat izan zuen eta horren erruz gurpila bere lekutik atera zitzaion. Arazoa konponduta, 20. postuan jarri zen, baina barruan zituen indar guztiak atera eta gero 5. postuan bukatzea lortu zuen.

BERDINTASUNAREN ALDEKO HERRI LASTERKETA

"Arrakastatsua izan da aurtengo Amurrioko Herri Lasterketa"

PABLO MAS MOLINA

Nahiz eta iragarritako eguraldia txarra izan, azkenean euriari muzin egin eta eguraldi ona izan da Amurrioko Berdintasunaren Aldeko IV. Herri Lasterketan. Horrek, parte hartzearen aldetik, aurtengo herri lasterketa jendetsuena izatea ahalbidetu du. Guztira ia 600 kirolari izan dira Amurrion, 350 inguru herri lasterketan (nagusien lasterketan) eta 200etik gora txikien kasuan.

Nagusien lasterketak eman dio hasiera goizari, 12:00etan. Lasterketaren hasieratik 9 korrikalariz osatutako taldetxoak aurrera jo du, eta lehenengo metro horietan Sergio Markina Oinkariak taldeko korrikalariak erritmoa eraman du. Bigarren buelta hasi bezain pronto, Landako auzoaren inguruan, talde hori erabat lehertu egin da eta azkenean, Unai Saez de la Fuente izan da azkarrena. Mutilen podiuma Joseba Plagarok eta Kepa Vallejok osatu dute (Kepa Amurrioko korrikalaririk azkarrena izan da). Nesken kasuan, Oihane del Valle korrikalari laudioarra izan da lasterketa burua hasiera-hasieratik eta lortutako abantailari era erosoan eutsi egin dio. Nesken podiuma Zuriñe Frutosek eta Patricia Kortazarrek osatu dute. Amurrioko neskarik azkarrena Laura Hidalgo izan da.

Nahiz eta lasterketa herrikoia izan eta gehienbat Aiaraldeko korrikalariei zuzenduta egon, Euskal Herriko hainbat lekutatik hurbildu dira kirolariak Amurriora: Gernika, Zalla, Getxo, Bilbo, Eibar, Gasteiz edota Lekeitiotik.

Amurrioko Herri lasterketaren helburu garrantzitsuena berdintasunaren alde borrokatzea da, eta alde horretatik poz-pozik gaude, nagusien lasterketan 82 emakumek parte hartu baitute.

Lasterketa aurrera eramateko ezinbestekoa da bolontarioen laguntza, eta lan horretan Oinkariak Atletismo Taldeko kideok Amurrioko hainbat talderen laguntza jaso dugu, hala nola; Amurrio Trail Taldea, Apdema (haientzat izango da aurten lortutako dirua) edo Amurrioko Udala.

Garaikurrak eman ostean, Oinkariak eta Amurrio Trail taldeetako kidea den Mikel Letonari omenaldia egin zaio bere kirol ibilbidea dela-eta. Amurrio Oinkariak Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Amurriora hurbildu diren pertsona guztiei eta bere laguntza eskaini duen boluntario orori..

Sailkapenak www.sailkapenak.com webgunean daude eta argazkiak Amurrioko Herri Lasterketaren Facebook-eko orrialdean.

Nagusiek zein txikiek disfrutatu zuten ibilbideaz. Argazkiak: Maddi Isasi

_Herriko plaza

_agurrak

Aita eta Onintze

Zorionak Aita eta Onintze! Ederto pasa maite zaituztegunon artean. Musu handi bana!

Etxekoak

Itziar

Urteko egun guztietan koadrilari zoriona ekartzeagatik, muxu bat eta 19 tirakada belarrietatik!

Koadrila

Eugenio

Zorionak uge, euke, eugenito, aita!! Muxu bat zure hiru amesgaizto eta kuttunenen partez!

Familia

_Argitaratu zuk zeuk zorion-agurrak aiaraldea.eus atarian, nahierara!

Zorion-agurrentzako txoko berezia prestatu dugu sarean. Erabili nahi? Egin zaitez aiaraldea.eus atariko komunitateko erabiltzaile eta argitaratu maite dituzun horientzako zorion agurrak nahi duzunean eta nahierara! Guk sare sozialen bidez zabalduko dugu!

_denborapasak

Itzalpe / ❖ IZENA — Emakume izena / Ñabardura — Elaia, ainara / Mojategi — Ekarria

Pl., itsas ugaztuna / Aspaldikoa

Jarriak / ... baterako, adibidez — Baionako auzoa / ❖ DEITURA — Lezoko / Junta-gailua

Nazioarteko garraioetan / Bokala — Fosforoaren ikurra / Soldata

Gauzatzea / Sabela — Bete / Zati

Txerren, deabru / Tona, labur-labur

Ipar EH-n, inguru / Ibar, bailara — Nafarroako udalerria / Naizen hau

Alfer / Kontso-nantea — Potasioaren ikur kimikoa

Suari dario — Bizkaieraz, fruituak

❖ Pala jokalari amurrioarra.

OSO ERRAZA

		8		7	9	5	3	2
9		7	6	3		1	4	
	2			1				7
6		1		9	3	7	2	4
		9	7	2	6	8	5	
5	7		1	8	4			9
		4		5				
				6	8	4		
	9	6	3			2	8	5

ERRAZA

	8			5	7		3	6
5			4				2	
6	3	4			8			
	4	8			3	6		
3		6	5					
								7
		3	8					
		9	3		2	7	5	4
2	5		7			8	6	

ZAILA

					5		7	
		6	2		4	1		
2				9		5	8	
3	7				2		4	5
	4			3			6	
5			9			7		
						3	2	7
8						4		
	2	5					1	9

OSO ZAILA

				2			8	
				7	5	2		6
	8	9	4			7		
			6			3		
5								7
		4			3			5
				3				
	7			8		6		
4	6		5			8		

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai:
http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18
Buelta gogorra iruditzen zaizu? Gabonetan bizi izandako momentu bereziak urrun egoteagatik gehiago baloratzen dituzu, ez al dira aurtengo oporrak aurrekoak baino magikoagoak izan? Magia polita familiaren inguruan sortzen dena, ezta?

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20
Beste urte bat joan denez egin ez duzun guztiaz jabetu zara. Egin duzunaz ez damutzea garrantzitsua da, eta egin ez duzuna egiteko inoiz ez da berandu izango, beraz... zergatik ez dastatu 2016an esperientzia berriekin datozen zapore berriak?

HERENSUGE
03.21-04.20
Tripa handitu zaizula? Tira, Gabonetan hori gertatzea normala da. Betiko ohiturekin hasterakoan lehengo egoerara bueltatuko zara berehala, lasai. Bai gozoak amonaren kroketak, amaren piperrak... ez damutu jandakoaz!

LAMIA
04.21 - 05.20
Zorionak zuri urte berria ospatzeko hartu duzun erabakiarengatik! Zure bihotzean sartzen utzi duzun pertsonarekin sentitzen dituzun ilusio eta gogoak ez dira bakarrik amodio kontu huts bat, zure burua ere aldatzera iritsi baitzara!

BASAJAUN
05.21 - 06.20
Opari gutxi ekarri al dizkizu Olentzerok? Baina zure gustukoak izan dira? Berdin du kantitatea kalitatezko detaileak jasotzen ditugunean. Ez izan materialista eta disfrutatu, gehiago izanda duzunak garrantzia galduko luke eta.

BASANDERE
06.21 - 07.20
Merezi al du beti eztabaidan ibiltzeak? Egun politak izan ostean normaltasunera bueltatu eta umore aldaketekin hasi zara? Argi dago oporretan egoteak edonor zoriontsu egiten duela, baina ez al da errazagoa oztopoak era positiboan gainditzen badituzu?

GAUEKOAK
07.21 - 08.21
Urte berria gogotsu hasi duzu ezta? Betiko lagunek ematen diguten ilusio eta konfiantza maiz ahazten dugu, baina urte berriko parrandan haiekin biltzerakoan oinarri garrantzitsua direla gogorarazten digute.

JENTILAK
08.22 - 09.22
Beste urte batez faltan izan ditugu gurekin ez daudenak. Errudun sentitzen zara gainera ospakizun guztietan. Euren desioak kontuan hartu nahi badituzu, galdetu zure buruari ea zer nahiko luketen maite dituzun horiek zuretzako. Badakizu erantzuna, eta zure esku dago.

AKERBELTZ
09.23 - 10.22
Utziozu gastatzeari eta has zaitez dirua aurrezten! Gabonak aitzakia, behar baino gehiago erosi zenien etxekoei eta baita zure buruari ere. Eta beherapenak orain? Hausnartu, hausnartu...

MARI
10.23 - 11.22
Eskerrak Gabonetako buruhauste eta lan guztiak bukatu direla! Urte berri honetarako helburu berri hau izan behar duzu: ez dut berriro guztientzako lana nik bakarrik egingo, hori egiten uzten didanak ez nau behar beste maite.

ZIRIPOT
11.23 - 12.20
Oraindik ez da ekaitza hasi eta dagoeneko zirimiriaz kexatzen ari zara. Une guztiek dakartzaten gauza positiboez elikatzen ikasi behar duzu. Zirimiriaren ostean askotan ortzadarra dago!

SUGAAR
12.20 - 01.19
Nobedadeen zain egoteak ez dizu bizitzen usten. Zure urteak ospatu ezinean zaude oparirik garrantzitsuenaren zain zaudelako. Zure ingurura begiratu, ez al duzu zoriontsu egoteko arrazoirik? Betiko jendea hor izango duzu beti.

_irakurlearen txokoa

_agenda

01.14 OSTEGUNA

10:30 BILBO
ERAKUSKETA
#Burdinkolore
Itsas Museoa

18:00 LAUDIO
HITZALDIA
Emakumea eta osasuna
Kultur Etxea

19:00 ARESPALDITZA
HITZALDIA
Gabirel Ezkurdia: "Pariseko atentatuak... eta gero zer?"
Udaletxea

01.15 OSTIRALA

16:00 LAUDIO
HEZKUNTZA
Orientazio akademiko eta profesionalerako azoka
Laudio Ikastola

19:00 LAUDIO
ANTZERKIA
13 gezur, Oihala Zabaltzen taldearen eskutik
Lanbide Heziketa

19:00 OROZKO
ARGAZKI ERAKUSKETA
"Can I take you a picture?"
Orozko Museoa

19:30 OROZKO
BILERA
ADIEren batzar informatiboa
Donibane Aretoa

20:30 AMURRIO
ENTSEGUA
Kintoak
Matias Landaburu

01.16 LARUNBATA

10:00 DELIKA
BERBABENTURA
Orientazio lasterketa Nerbioi ibaiaren ur-jauziko arroan
El Infierno taberna

GAZTETXE EGUNA

01.16 LARUNBATA
Urduñako Gaztetxea

13:00 Poteoa
15:00 Bazkaria
17:00 Futbolin txapelketa
20:00 Kontzertua: El Sonido de la Metralla, Marianitoz Blai, Akerbeltz

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Eskulanak eta askaria
Ludoteka (Lamuza Parkea)

SAN ANTON JAIAK

01.16 LARUNBATA
Baranbioko San Anton baseliza

18:00 Umeentzako igel-toka lehiaketa
19:00 Helduentzako igel-toka txapelketa
20:00 Herri afaria
23:00 Erromeria
04:00 Txintxortada

19:00 ARTZINIEGA
HITZALDIA
Konkorrak, larrialdiak eta aukerak, Mateo Lafragua
Artziniega Museoa

20:00 LAUDIO
INMUNDiCIA FESTIVAL
Bataälla, Obducion de la Amenaza, Take Warning, Hardflip, Un dia de Furia
Orbeko Etxea (4 euro)

20:30 LAUDIO
SURF KONTZERTUA
The Longboards
Keska Taberna

22:00 LAUDIO
BAKARRIZKETA
Juan Muñoz (Cruz y Rayako kidea)
Sorgin Taberna

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Hammer Killers, disko berriaren aurkezpena
Drumgorri Aretoa

01.17 IGANDEA

08:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Zugaztietara txangoa
Institutua

10:00 OKONDO
KROSA
Arabako Kros Txapelketa
Herrigunea

10:00 AMURRIO
SAN ANTON AZOKA
Azoka, enkantea...
San Anton plaza

13:30 BARANBIO
SAN ANTON JAIAK
Poteoa
San Anton baseliza

19:00 LAUDIO
ANTZERKIA
13 gezur, Oihala Zabaltzen
Erdigunea

20:00 MAROÑO
JAIAK
Dantzaldia
Herrigunea

01.18 ASTELEHENA

15:00 LAUDIO
HEZKUNTZA TOPAKETA
Heziketa osasungarria gurasoentzat
Erabilera anitzeko aretoa

19:00 AMURRIO
HEZKUNTZA
"Ez dizu zirrararik sortzen zientziak?"
Katekesi aretoa

01.19 ASTEARTEA

19:00 ARESPALDITZA
AIARAKO UDAL BILERA
Elkarte eta herritarrentzat
Udaletxea

19:00 AMURRIO
HEZKUNTZA
"Umorea, adierazpena eta sormena"
Katekesi aretoa

01.20 ASTEAZKENA

12:30 OKONDO
JAIAK
Meza eta hamaiketakoa
Otaola auzoa

19:00 LAUDIO
LIBURU AURKEZPENA
"Los verdes campos", Amado Gomez
Erabilera anitzeko aretoa

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Presoen borrokaren ibilbide historikoa
Gure Aukera

19:00 AMURRIO
HEZKUNTZA
"Jolasa eta bizipoza"
Katekesi aretoa

01.21 OSTEGUNA

19:00 AMURRIO
HEZKUNTZA
"Bihotzaz hezi, gogoz bizi ikasiz"
Katekesi aretoa

01.22 OSTIRALA

19:00 LAUDIO
BAKARRIZKETA
"Zergatik praktikatzen dugu sexua gazteleraz?"
Lanbide Heziketa (3 euro)

ZINEMA

01.16 LARUNBATA

"SUFRAGISTAS" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA 17:30ean eta 20:00etan (3 €)

01.17 IGANDEA

"7. IPOTXA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean (3 €)

"YOKO ETA BERE LAGUNAK" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,6 €)

"PAPA O MAMA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan (3 €)

"EL PUENTE DE LOS ESPIAS" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,8 €)

01.18 ASTELEHENA

"EL PUENTE DE LOS ESPIAS" AMURRIO ANTZOKIA 20:0etan (3,6 €)

01.23 LARUNBATA

"WHIPLASH" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA17:30ean eta 20:00etan (2 €)

01.24 IGANDEA

"KOKO, DRAGOI TXIKIA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean (3€)

"HOTEL TRANSILVANIA 2" AMURRIO ANTZOKIA 17:30ean (3,60 €)

"DE PADRE A HIJAS" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan (3€)

"STAR WARS: EL DESPERTAR DE LA FUERZA" AMURRIO ANTZOKIA 19:30ean (4,8 €)

_ezin galdu

SAN ANTON AZOKA: Igandean San Anton elkarteak azoka egingo du Amurrion, Gobernuz Kanpoko Erakunde bat laguntzeko. Enkantea gauzatuko dute ekoizleek oparitutako produktuekin, 12:30etatik aurrera nahi duenak bere eskaintza egiteko aukera izango du.

GABIREL EZKURDIAREN HITZALDIA: "Pariseko atentatuak... eta gero zer?" lelopean Gabirel Ezkurdia nazioarteko analistak Ekialde Hurbileko gatazken arrazoiak eta ondorioak azalduko ditu, 19:00etan izango da hitzordua gaur -urtarrilak 14- Aiarako udaletxean.

Jimmy jazz gasteiz

URT 16 // ZE ESATEK! + Skasti
20:30 (6 € + gastuak / 8 €)

URT 22 // McONAK + SKAKEITAN
20:30 (7 € + gastuak / 10 €)

URT 23 // BEATLES FOR KIDS / ABBEY ROAD
17:00 / 21:00

URT 30 // SU TA GAR + Tutan Come On
20:30 (14 € + gastuak / 16 €)

OTS 11 // LIBE + MINOR EMPIRES
20:30 (9 € + gastuak)

OTS 12 // SOULFLY + King Parrot + Incite
20:00 (17 € + gastuak / 20 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

ETXEA SALGAI OKONDON
Prezioa: Kontsultatzeke
334 m², 4 gela, 3 bainugela, sukaldea, 25 m² egongela, terraza, altzairuz hornituta, txokoa, lorategia, garajea.
Erref.: 162.663

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 185.000 €
68 m², 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela, balkoia, igogailua, eguzkitsua, eraberrituta, egoera bikaina, negoziagarria.
Erref.: 167.669

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 160.000 € (20.000 € BEHERATUTA!)
80 m², 3 gela, 2 bainugela (bat logela printzipalan), sukaldea balkoiarekin, egongela, trastelekua, garajea prezioaren barne, igogailua, kanpoaldera, altzairuz hornituta.
Erref.: 167.572

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 270.000€ (50.000 € BEHERATUTA!)
109 m², 5 gela, bainugela eraberrituta, komuna, sukaldea, egongela eguzkitsua, balkoia, trastelekua, kanpoaldera, igogailua, eraberrituta.
Erref.: 167.507

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 125.000 €
51 m², 2 gela, sukalde eraberritua, egongela, bainugela, trastelekua, altzairuz hornituta, egoera bikaina.
Erref.: 167.666

ETXEA SALGAI AMURRION
Prezioa: kontsultatzeke
172 m², 3 gela, 2 bainugela, komuna, sukaldea jakitokiarekin, jantokia, egongela tximiniarekin, trastelekua, garajea, bi arkupe, 1150 m² -ko lursaila etxe inguruan.
Erref.: 167.622

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: kontsultatzeke
214 m², 4 gela, 4 bainugela, sukalde berria, egongela, txukundegia, balkoia, 150 m²-ko lorategia, trastelekua, garajea prezioaren barne.
Erref.: 99.807

www.etxaurre.com
946 72 85 50
Zumalakarregi, 38 Laudio

_kontra

aiaraldea.eus



Nora Calzada Aldekoa

“Papamovil” izena perfektua da, patata erre beteak mugitzen ditugu-eta”

NORA CALZADA ALDEKOA (Bilbo, 1986) Lekamañan bizi da, eta Papamovil proiektua sortu zuen duela bi urte. Eusko Labeleko produktuekin patata erreak bete eta saltzen dituzte furgoneta ibiltari batean.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Zuen proiektua ezagututa, normala arabarrei patatero deitzea...

Jakina! Horregatik erabaki genuen egitea! Oporretan Dubaira joan ginen behin eta han patata postu bat ikusi genuen, oso ondo muntatua. Gure lehen ideia lokal finko bat jartzea izan zen, baina gero jendearen zain egon ordez gu bertaratzea erabaki genuen. Horregatik sortu genuen Papamovila.

Zuek egina eta diseinatua al da Papamovila?

Bai, marka, diseinua... dena egin dugu hasieratik amaierara. Izena perfektua zelako aukeratu genuen, ezin hobea da! Patata erre beteak mugitzen ditugu-eta! Furgonetaren diseinua ere guk egin genuen, Francisca Isabel Naranjoren laguntzarekin. Barrutik baldintza tekniko bereziak izan behar zituenez, bi urte behar izan genituen. Izan ere, arau asko bete behar dira: elikagaien kate hotzarena, elektrizitatearekiko autonomoa izatea, garbiketa pautak...

Mozkorraren eta ajearen kontrako errezeta al da zuena?

Ez. Papamovila kalitate altuko janaria da, gure produktuen propietateak maximoki bermatzen dituena. Eusko Label produktuak bakarrik erabiltzen ditugu. Hortaz, gure salmenta ez dago mozkorrei zuzendua, nahiz eta haiek ere gure bezeroak izan.

Patata pobreen lehengaia dela diote. Nola lortu duzue elikagai eta proiektu “aberats” bat ateratzea hortik?

Gure lema “Baratzetik zure ahora” da. Ez dugu elikagairik manipulatzen, patata errea gure lurreko bestelako produktuekin eskainia, hori da gurea: Eusko Labeldun hirugiharra, txorizoa, olagarroa...

Festa askotan parte hartu duzue. Zein da egon zareten toki bereziena?

Lekurik bereziena niretzat Amurrio da, hemen hasi zelako dena, Txakolin Egunean. Proiektuak Amurrio Bideanen babesa du, eta Amurriori esker atera da aurrera. Gu Lekamañan bizi gara. 2014Ko Arabako ekintzaileen saria guri eman ziguten. Asko zor diogu eskualde honi.

Bi denboraldi soilik daramatzazue merkatuan. Zelakoa izan da uzta edo ibilbidea?

Aurten oso harrera ona izaten ari gara. Gogorra izaten ari da, gauza berria delako. Jendea ez dago ohituta patata beteak ikusten, baina pixkanaka gure bezeroak areagotzen ari gara. Ibilaldia, Korrika, Araba euskaraz...

Aurrera begira ba al duzue proiektu berririk buruan?

Bai. Labe handiago bat jarri nahiko genuke hainbeste ilararik ez egoteko.

Patatak duen alde txarra bere puntuan atera behar den produktua dela da, ez gutxiegi ez gehiegi egina. Bere denbora behar du.

Argazkia: @rhodelinda

Itziar
Urkijo Cela
PSIKOPEDAGOGOA

_Leihotik

Galtzeari beldur

Johnny Cash ongi baino hobeto aritu zen honetaz, hark ederto ezagutzen baitzuen gizakion beldur sentsazio hura. Lehenengo arnasketekin batera eratzen da, bizitza jaso eta berehala hura galtzearen ikara garatuz. Denboran zehar ereindakoa noizbait hondatuko den galdezka, ahnedonia batean murgiltzearen arriskuan. Elkarbizitza gizarteratze prozesuaren parte denetik, psikologiaren munduan folie a deux deritzon sindromea ere eman da, pertsonen artean partekatutako zoramena galtzearen beldurra. Laztasun eta gozotasunez betetako errealitatea neurri berean. Zein latza galera baten esperoan jada daukagunaren zaporea ez dastatzea. Norbaiten ihesaren zain egoteagatik, erdibanatutako arnasketak galtzea.

Azken finean, galtzearen ekintza izandakoaren ondorio baino ez da. Horretarako gaude hemen, izandakoaren seinalea inprimatzeko. Inprimazio sendoa, iraunkorra eta tinkoa. Beldurra aztarna hori ezabatzen doa pixkanaka, muga batzuen barruan atzituz gure gaitasun guztiak. Bestela, pentsa, zenbat gauza galdu ohi ditugu galtzearen beldur?

ENPRESA OPARIAK

KAMISETAK, USB-AK, TERMOAK...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU///

GUREKIN ERE EUSKARAZ!

Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA///
JANTZI ZERBITZUAK///
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com